

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, LEIOAKO UDALAREN 2008-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Leioako Udalaren 2008ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. 2010eko martxoaren 4an Osoko kideen gehiengoak onespena eman dio txostenari.

Udalaren, bere diren Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoaren Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak legezotasuna aztertzen du honako atal hauetan: aurrekontua, sarrerak, zorpetzea, langileria, diru-laguntzak eta administrazioko kontratazioa; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdietan ere.

Legezotasunaren atalean Epaitegiak udal jardueraren gaineko iritzi orokorra plazaratu du, indarreko arautegia zuzentasunez bete duela ondorioztatzen duena. Iritzi honi txostenean bertan zehaztu diren hainbat salbuespen egin zaizkio.

Aurrekontuaren esparruan, Erakunde Fiskalizatzaileak adierazi du kreditua gaitzeko 52 mila euroko espediente baten onespenean Aurrekontua Exekutatzeko Udal Araua urratu dela.

Langileei dagokienez, HKEEk adierazi du Udalak ez duela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara eman Udalhitz Akordiekiko Txertaketa, tokiko euskal erakundeen langileria funtzionario eta laboralaren laneko baldintzak arautzen dituztenak.

Berebat, Udalaren hiru funtzionari izendatzeko erabilitako hautaketa prozedurak eta Erakunde Autonomoek 16 langileren aldi bateko kontratazioan ez dute publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana bermatu.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, txostenak adierazten du ez Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean ezta Estatuko Aldizkari Ofizialean ere ez dela argitara eman urbanizazio lanen proiektuen erredakzioa eta zuzendaritza zerbitzuaren kontratua, kopuruaren arabera bietan argitara eman behar zatekeena.

Atal honetan bertan, HKEEK adierazi du urratu egin dela Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratua hainbat kasutan; hona hemen adierazgarrienak: gastuak egiterakoan kontratuaren xedearen zatiketa; zerbitzu kontratu batek % 76ko aldaketa izan du jatorrizko aurrekontuarekiko eta honek lizitazio printzipioak urratzea dakar, izan ere, kontratuak aldatzeko eskumena zuhurtziazko muga baten barruan egin behar baita; obra kontratu batean aldaketa bat gastua egin ondoren aldatu da; hiru zerbitzu kontratutan exekuzioak hurrenez hurren % 228an, % 119an eta % 29an gaintu du esleipen zenbateko gorena, dagozkion kontratu aldaketak batere bideratu gabe; eta azkenik, sektore publikoaren kontratazio arauetan aurreikusitako esleipen prozedurak saihestu dira 959 mila euroko gastuak egiterakoan.

Udalak zuzeneko diru-laguntzak eman ditu, diru-laguntzen kudeaketan buru egiten duten berdintasun, publizitate, gardentasun, objektibotasun, eraginkortasun eta efizientzia printzipioak urratuz.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia eman du aurkezpen eta edukiari dagokionez, eta salbuespena egin du kontabilitateari egindako hainbat doiketagatik, Udalaren kasuan Diruzaintza Geldikina eragiten dutenak eta Erakunde Autonomo bat.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemei eta kudeaketa prozeduren gainean, aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazioa eta diru-laguntzen atalean.

Amaitzeko, finantza egoerari dagokionez adierazi du 2008an sortutako aurrezki garbiak 2006tik 2008ra bitarteko ekitaldietan izandako inbertsio bolumen berari eusteko bide ematen duela kanpoko finantzaketa iturrietara jo beharrik izan gabe; salbuespen izango dira Sozietate Publikoaren bitartez egingo diren Pinasoloko kirol instalakuntza berriaren proiektuko lanak, izan ere, ezinbesteko izango baita kanpoko finantzaketara jotzea.